



2025GOIO0010

ORDIZIAKO UDALA

Ordiziako udalerrian euskara ikasteko edo hobetzeko dirulaguntzak emateko oinarriak eta deialdia, 2025 urtekoa.

OINARRI ESPEZIFIKOAK

I. XEDEA

1. artikulua. Laguntzen helburua.

Euskara ikasten edo hobetzen dihardutenei dirulaguntza publikoak ematea da oinarri hauen xedea.

2. artikulua. Eskumena duen organoa eta deialdia argitaratzea.

Oinarriak eta deialdia Ordiziako Udaleko Alkateak edo hark eskuordetzen duen organoak onartuko ditu eta Dirulaguntzen Datu-Base Nazionalean eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira.

3. artikulua. Araudia.

Laguntzen emakidak nahiz dirulaguntza emailearen eta onuradunen arteko lege harremanak oinarri hauen arabera eta dirulaguntzak ematerakoan indarrean dagoen araudiaren arabera xedatuko dira.

Oinarri hauetan aurreikusi gabeko gaietarako Ordiziako Udaleko Dirulaguntzak arautzeko Ordenantza eta azaroaren 17ko Dirulaguntzen 38/2003 Legea hartuko dira oinarri.


II. ESKATZAILEAK

4. artikulua. Eskatzaileak.

Dirulaguntza hauen eskatzaileek honako baldintzaren bat bete beharko dute:

— 16 urtetik gora izatea, diruz laguntzea eskatzen den ikastaroa amaitzen den datarako eta Ordizian erroldatuta egotea.

— Egoitza soziala Ordizian duen eta euskara sustatzeko Udalarekin hitzarmena sinatu duen enpresa batean edo merkatal-establezimendu batean lan egitea; edota Udalarekin euskara sustatzeko hitzarmena sinatu duen Ordiziako kirol-talde bateko begiralea edo entrenatzailea izatea.



Ordiziako Udala

2025GOIO0010

Dirulaguntza honetatik kanpo geratzen dira, xede berbererako beste erakunde pribatutik edo publikotik, HABEtik izan ezik, dirulaguntza jaso duten ikasleak.

5. artikulua. Lagundu daitezkeen ikastaroak.

HABEk homologatutako euskaltegiek eta zentroek emandako euskalduntzeko eta alfabetatzeko ikastaroak lagundu ahal izango dira, 2024ko irailetik 2025eko irailera bitartean antolatutakoak.

a) HABEk homologatutako ikastaroak.

- Modulazio ezberdineko ikastaroak
- Barnetegiak. Ez da laguntzarik emango egoitza gastuetarako.
- Auto-ikaskuntza.
- Udako ikastaroak.

b) Ikastaro ez homologatuak: modulazio txikikoak, baina beti ere ikasturtean zehar urrats bat gainditzen bada.

6. artikulua. Dirulaguntza jasotzeko baldintzak.

— Eskabidea behar bezala beteta eta derrigorrezko dokumentazioa dagozkien epeen barruan aurkeztea.

— Eskatzaileek Ordizian erroldatuta egon behar dute diruz laguntzea eskatzen den ikastaroa amaitzen den datarako (azken eguna barne).


— Erroldatu gabeko eskatzaileen kasuan, gutxienez sei hilabetez egon behar dute lanean Ordiziako enpresa, merkatal establezimendu edota kirol-talde batean, diruz laguntzea eskatzen den ikastaroa amaitzen den datarako.

Oharra: Eskatzaileak, erroldatuta dagoen Udalaren dirulaguntza jasotzen badu, ezingo dio eskaerarik egin Ordiziako Udalari.

— Euskarazko ikastaroan gutxienez %80tik gorako asistentzia egiaztatzea; horretarako, ikastaroaren hasiera- eta amaiera-data hartuko dira kontuan. Epe horren barruko asistentzian egindako huts egiteak zuritzeko gaixotasun agiriak bakarrik onartuko dira.

—Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasunarekiko zerga-betebeharrak egunean izatea.

—Ordiziako Udalarekin zorrik ez izatea.



Ordiziako Udala

2025GOIO0010

III. DIRULAGUNTZEN ZENBATEKOA

7. artikulua. *Dirulaguntzak*

1.-Dirulaguntza eskatzeko baldintzak betetzen dituzten Ordiziako herritarrei (Ordizian erroldatuta daudenak), matrikula kostuaren %100 itzuliko zaie; ezarritako gutxieneko ordu kopurua baino gutxiago eginez gero, %60.

2.-Dirulaguntza Ordizian dauden eta euskara sustatzeko Udalarekin hitzarmena sinatu duten enpresetako eta merkatal establezimenduetako arduradun eta enplegatuei, batetik, eta, bestetik, euskara sustatzeko hitzarmena sinatu duten Ordiziako kirol-taldeetako kirol-begirale eta entrenatzaileei, hau da, Ordizian erroldatu gabe egonik eta atal honetako dirulaguntza eskatzeko baldintzak betetzen dituztenei, matrikularen %85 itzuliko zaie; ezarritako gutxieneko ordu kopurua baino gutxiago eginez gero, %40.

Edozein kasutan, urteko gehienez ere 500 €-ko (barnetegien kasuan 650 €) dirulaguntza jasoko du eskatzaile bakoitzak. Halere, Udalak aukera izango du kasu bereziak aztertu eta onartzeko, dagokion Udal Saileko txosten teknikoan oinarrituta.

8. artikulua.

Curriculum berriaren arabera A1A0/ A1A1/ A2A1/ A2A2/ B1A2/ B1B1 azpimaila behin bakarrik aplikatuko zaizkie aurreko artikuluko laguntzen zenbatekoak. Bestalde, azpimaila hauetan lehendik diruz lagundu den azpimaila bigarren urtez errepikatzen dutenei, murriztu egingo zaizkie dirulaguntzak:

- Ordizian erroldatutako herritarrei: %70.
- Ordiziatik kanpo erroldatuta egonik oinarri hauetako 7. artikuluko 2. ataleko baldintzak betetzen dituztenei: %50

Aldiz, B2B1/B2B2/C1B2/C1C1/C2C1/C2C2 azpimailetan, errepikatuz gero, bigarren aldiz aurreko artikuluko laguntzen ehuneko berberak jasotzeko aukera eskainiko da.

Horretarako, ikaslearen azken bost ikasturteetako ikas-prozesua hartuko da kontuan. Ikas-prozesua jarraitua denean, aurreko ikasturtean diruz lagundutako azpimaila baino baxuagorik ez da lagunduko.

IV. ESKABIDEAK

9. artikulua. Eskabideak egiteko epeak.

Eskatzaileak ikastaroa amaitu ondoren egin beharko du dirulaguntza eskaera. Herriarren Arretarako Udal Bulegoan (Kale Nagusia, 24-behea), 8:00etatik 13:30era bitartean, edo era telematikoan www.ordizia.eus atariko dirulaguntzen atalaren bidez, ondoren zehazten denaren arabera:


- a) Neguko ikastaroak (urria-ekaina).
 - urrian hasten diren ikastaroak: deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik 2025eko uztailaren 18ra arte.
 - Otsailean hasten diren ikastaroak: deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik 2025eko uztailaren 18ra arte.
 - Barnetegiak eta xede berezietako ikastaroak: ikastaroa amaitu eta bi asteren barruan.
- b) Udako ikastaroak (uztaila-iraila).
 - Ikastaroak amaitu eta bi asteren barruan.

10. artikulua. Ordainketa aurrerakina.

Dirulaguntzaren aurrerakina lortu ahal izateko, eta eskatzaileek aurretik matrikularik ordaindu behar ez izateko, interesatuak eskaera motibatua egin beharko du eta Ordiziako Udalaren gizarte zerbitzuek bere programaren baitan aldeko txostena egin beharko dute. Erabakia alkate dekretuz ebatziko da, eskaera jaso eta ahalik eta epe motzenean. Ordainketa zuzenean euskaltegiari edo barnetegiari egingo zaio interesatuaren izenean.

11. artikulua. Eskabide orriarekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa.

- Eskaera-orria, behar bezala beteta.
- Matrikularen kutzako ordainagiria(k).
- Euskaltegiak egindako ziurtagiria. Bertan honako hauek adierazko dira: Matrikularen ordainketari buruzko informazioa, ikastaroaren hasiera eta amaiera datak, ordutegia, ikasleak jasotako ordu kopurua, egindako maila edo azpimailak, gainditu diren ala ez, aprobetxamendua eta asistentziari buruzko informazioa.
- Erroldatu gabeko ikasleen kasuan, lan egiten duten Ordiziako zerbitzu enpresa edo entitatearen agiria eta ikastaro horrengatik beste dirulaguntzarik jasotzen ez dutela dioen ziurtagiria.



Ordiziako Udala

2025GOIO0010

12. artikulua. Dokumentazio elkarreragilea eta egiaztagarria

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak, 28. artikuluan, aitortzen du herritarrek eskubidea dutela administrazio jardulearen esku dauden edo beste edozein administraziok egin dituen dokumentuak ez aurkezteko. Horrela, administrazio jarduleak dokumentu horiek kontsultatu edo eskatu ahal izango ditu, salbu eta interesdunak horren aurka egiten badu. Administrazio publikoek elektronikoki bildu behar dituzte dokumentuak, beren sare korporatiboen bidez edo datuen bitartekaritza-plataformei edo horretarako gaitutako beste sistema batzuei kontsulta eginez.

Ordiziako Udala Euskadiko administrazioen elkarreragingarritasun- eta segurtasun-nodoaren parte da. Nisae plataforma komuna da euskal sektore publikoko administrazio eta erakunde guztientzat, haien artean eta gainerako administrazioekin datu elektronikoen trukea inplementatzeko nodo autonomiko gisa.

Deialdi honetan honako baldintza hauek egiaztatuko dira plataforma korporatiboen, bitartekaritza-plataformen (Nisae) edo sarbide publikoko plataformen bidez:


- a) Nortasun Agiri Nazionala.
- b) Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean izatea.
- c) Zerga-betebeharrak egunean izatea, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun Departamentuarekin egiaztatuko dena.
- d) Erroldatzea egiaztatzeko, Ordiziako Udalaren Udal Erroldan kontsultatuko dira datuak.

Eskatzaileak egiaztapen horren aurka egiten badu, eskatzaileak berak aurkeztu beharko ditu agiriak.

13. artikulua. Akatsak zuzentzea.

Nahitaezko dokumentazioak akatsen bat badu edo osatugabea bada, interesdunei hamar egun balioduneko epea emango zaie, argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita, antzemandako akatsak zuzentzeko.

Emandako epea igaro eta atzemandako akatsak zuzendu edo beharrezko dokumentazioa osatu ez badute, eskaeran atzera egin dutela ulertuko da, eta prozedura artxibatu egingo da, 39/2015 Legearen 68.1 artikulua araberaren arabera emango den ebazpenaren ondoren.



Ordiziako Udala

2025GOIO0010

V. PROZEDURA

14. artikulua. Izapidetzea, proposamena eta ebazpena

- 1.-Dirulaguntza norgehiagokako araubidean emango da.
- 2.- Ordiziako Udaleko Euskara Sailak bideratuko du prozedura. Alkatetza da dirulaguntza-prozedura antolatzeke eta ebazteko organo eskuduna, egin ditzakeen eskuordetzei kalterik egin gabe.
- 3.- Eskaerak ezarritako epean jasoko dira.
- 4.- Euskara Zerbitzuko teknikariek, eskaerak ebaluatu ondoren, ebazpen proposamena egingo dute.
- 5.- Jarraian, ebazpen proposamena eskatzaileari jakinaraziko zaio eta 10 eguneko epea izango du alegazioak aurkezteko.
- 6.-Ondoren, alkateak ebatziko du. Ebazpena www.ordizia.eus webgunean argitaratuko da.
- 7.-Behin betiko ebazpena emateko eta jakinarazteko gehieneko epea sei hilabetekoa da, dagokion deialdia argitaratzen denetik aurrera.

15. artikulua. Beste dirulaguntzekin bateragarritasuna.

Oinarrien arabera emandako dirulaguntzak bateragarriak izango dira soilik Gipuzkoako Foru Aldundiak eta HABE erakundeak ematen dituen dirulaguntzekin, baldin eta gainfinantziatorik gertatzen ez bada. Horrelakoetan, dagozkion kenketak egingo dira, aldea ez ordainduz edo dagokion kopurua itzultzeko eskatuz. Halaber, HABEk osotasunean finantzatzen dituen ikastaroen kasuan, Udalak ez du dirulaguntzarik emango.


16. artikulua. Dirulaguntzen finantzaketa.

Oinarri hauen xede diren dirulaguntzetarako Udalaren 2025eko aurrekontuan finkatutako kopurua 26.000 € da eta 1 480.02.335.00.0141 2025 diru-partidatik bideratuko da.

Aipatu diru kopurua dirulaguntza jasotzeko baldintzak betetzen dituzten ikasle guztien artean banatuko da.

Partida horretan jasotako diru kopurua baino handiagoa balitz eskaera, Udalak xede bererako diru-kopuru berri batzuk onetsi ahal izango ditu, baldin eta aurrekontu-eskuragarritasuna badago.

Guztiarekin ere, dirulaguntzen zenbatekoa ezin izango da egindako ikastaroen matrikula-kostua baino handiagoa izan.



Ordiziako Udala

2025GOIO0010

17. artikulua. Dirulaguntza ordaintzea.

Ikastaroa amaituta, dirulaguntzen behin betiko ebazpena emanda, dirulaguntza ordainketa bakarrean kitatuko da banku transferentzia bidez. Beti ere, ikastaro beragatik beste erakunde batetik dirulaguntzarik jasotzen ez badu.

18. artikulua. Onuradunaren betebeharrak.

— Dirulaguntza emateak eskatzen dituen baldintza eta betebeharrak interesatuak betetzen dituela egiaztatzea.

— Ordiziako Udalak egin beharreko egiaztatze-lanak onartzea eta laguntza eskaintzea, eta era berean, kontrol-organoek egin beharreko beste egiaztatze eta finantzen kontrolerako jardueretan ere laguntzea; aipatu jarduerak egiteko eskatutako informazio guztia emango da.

— Beste edozein administrazio edo erakundetatik (publikoa nahiz pribatua, nazio mailakoa nahiz nazioartekoa) jasotako dirulaguntzak organo emaileari jakinaraztea, halakorik jaso bada.

— Emakidaren ebazpena idatzi baino lehen, Gizarte Segurantzarekiko betebeharretan egunean egotea, baita Ogasunaren eta Udalaren zerga ordainkizunetan egunean egotea ere. Azken baldintza hori Udalak berak egiaztatuko du.


19. artikulua. Arau-hausteen eta zehapenen araubidea.

Ordiziako Udalaren Dirulaguntzen Ordenantza Orokorren VIII. Tituluan ezarritakoa aplikatuko da, baita honako hauetan xedatutakoa ere: Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra, uztailaren 21eko 887/2002 Errege dekretuaren bidez onartutako Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorren Erregelamendua eta gainerako araudi aplikagarria.

VI. ARGITARA EMATEA

20. artikulua.

Emandako dirulaguntzen, onuradunen eta zenbatekoen zerrendak, Ordiziako Udalaren webgunean (www.ordizia.eus) argitaratuko dira.



Ordiziako Udala

2025GOIO0010

Sinatzailea	Euskara Teknikaria Maria Teresa Berruet Arbelaiz
	Dokumentu hau elektronikoki sinatu da, honen sinesgarritasuna ziurtatzeko jo interneteko orrialde honetara: https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/0/76/AAAARE96K.Ti0r